ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2025eko abenduaren 12a, ostirala • 141 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA

**2025eko laugarren hiru hilabetealdiari (2025eko irailatik azarora) dagozkion ur-hornidura eta arazketa zerbitzuengatiko tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta tasen ordainketa**

2025eko laugarren hiru hilabetealdiari (2025eko irailatik azarora) dagozkion ur-hornidura eta arazketa zerbitzuengatiko tasa ordaindu behar dutenen erroldak egin eta jendaurrean jarriko dira hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Halaber, iragarki honen bidez, erroldaren barruko likidazioak taldeka jakinarazten dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Jendeaurrean jartzekoa den erroldan jasotako likidazioaren aurka, interesdunek berrastertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete lehendakariari, ordainagiriak kobratzen diren egunetik hilabeteko apean.

Ordaintzeko epea:

a) Epe boluntarioa: ordainagiriak kobratzeko data: 2025eko abenduaren 22an.

b) Premiamenduko betearazte bidea hasteko data: 2026ko otsailaren 11tik aurrera premiamendu bidean sartuko dira, eta legez esarritako errekarguak sortuko dituzte, bai eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostak ere.

Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.

Ondategi, 2025eko abenduaren 4a

*Presidentea*
*JAVIER GORBEÑA GARCIA*



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.12.12 06:59:42 Z